



Azpeitiko Udala

### **2024KO JOXE TAKOLO BEKA DEIALDIA (24-3D).**

Azpeitiko Udal honek, kirolaren eta aisialdia betetzeko jardueren arloan dituen eskumenak erabiliz, goi-mendizaletasunarekin zerikusi zuzena duten proiektuak bultzatzeko JOXE TAKOLO BEKA sortu zuen, orain urte batzuk, Euskal Herriko mendizale, mendi elkarte eta beste edozein eratako talde edo elkarteari zuzendua.

2024. ekitaldi honetan alpinismoarekin, abenturarekin, zientziarekin, esplorazioarekin eta dibulgazioarekin lotutako proiektu originalak, esploratzaileak eta dibulgatzaileak bultzatzea nahi izan da, eta helburu honekin Alkatetzak 2024ko otsailaren 21eko Ebazpenaren bidez laguntzaren deialdia eta oinarriak onartu zituen (GAOn 2023ko martxoaren 7an argitaratua).

Eskaerak egiteko epealdian bi proiektu aurkeztu dira Udal honetan:

- 1.- (2024JOTA0001) IZENIK GABEKO DORREA-Pakistan (Joseba Iztueta, Ibon Mendia, Unai Cobos)
- 2.- (2024JOTA0002) KAMINEROS BOULDER (Ainhua Caporossi)

Bekaren oinarrien laugarren atalak laguntza emateko kontuan izan behar diren irizpideak jaso ditu, eta laguntzaren baloraziorako Batzorde Teknikoak eskaera bakoitzaren azterketa egin ondoren, Udalaren Kirol Batzordeak 2024ko martxoaren 26an egindako bilkuran bekak onartzeko proposamena egin du aurkeztutako bi proiektuen alde puntuazioan izandako berdinketaren ondorioz:

- 1.- IZENIK GABEKO DORREA-Pakistan (78 puntu)
- 2.- KAMINEROS BOULDER (78 puntu)

Egindako proposamena ikusita, Alkatetza honek 2024. ekitaldirako JOXE TAKOLO BEKari dagokion 4.000€-ko laguntza bi proiektu finantzatzeko izango da:

- 1.- (2024JOTA0001) IZENIK GABEKO DORREA-Pakistan: 2.000€
- 2.- (2024JOTA0002) KAMINEROS BOULDER (Ainhua Caporossi): 2.000€

Proiektu hauek dira aurtengo irizpideak kontuan izanik bekaren helburuarekin egokien uztartzen direnak, izan ere, goi-mendizaletasuna, esplorazioa, originaltasuna, inklusioa eta parekidetasuna barneratzen dituzte. Azpimarratzekoa da, bi proiektuen balioa eta zailtasuna.

2024. urteko aurrekontuan behar adinako diru-izendapena badago bekari aurre egiteko honako gastu-partidan: 1.0500.481.341.00.02 2024 Transferentzia arruntak Kirol Batzordea. Modu berean programaren finantzazioan parte hartzen duten beste entitateek ere beren finantzazioa baieztatu dute.

Kirol Batzordeak egindako proposamena ikusita; laguntza jasotzeko onuradun proposatuak legezko baldintzak bete dituela egiaztatu, eta eskumenari dagokionean, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioenaren arabera **ERABAKI DUT**:

**Lehena.-** 2024. ekitaldirako JOXE TAKOLO BEKA deialdian aurkeztu



Azpeitiko Udala

diren proiektuen balorazioa onartzea.

**Bigarrenen.**- 2024. ekitaldirako JOXE TAKOLO BEKA deialdian IZENIK GABEKO DORREA (2024JOTA0001) proiektua finantzatzeko eta KAMINEROS BOULDER (2024JOTA0002) proiektua finantzatzeko bakoitzari 2.000 €ko laguntza onartzea eta ordaintzea.

Onuradunaren gain izango da emandako laguntza behar bezala exekutatzeko eta epe mugan justifikatzeko Udalaren Sarrera Erregistroan (Bekaren oinarrien 10. atalak jasotako baldintzak bete behar dira, eta ekintzaren justifikazioa beti ere 2025eko martxoaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko da).

Azpeitia, 2024ko apirilaren 17a  
ALKATEA,

